



BERDINTASUNA KIROLEAN

## Sakoneko aldaketarik ezean, pauso bi aurrera eta bat atzera



# Guztiok apustu, guztiok irabazteko

**K**irola da gizon eta emakumeen arteko berdintasunik eza gehien nabarmentzen den esparruetako bat. Pitzadura hori hamaika faktorek elikatzen dute: jaiotzen garen unetik bertatik neska eta mutikoak berdin ez gizarteratzea –sozializazio modelo diferenteak–, kirolak itsatsirik dituen baloreen aurrean maskulino-femenino estereotipoak gailentzea, komunikabideetan urri agertzea eta emakumezkoen kirolean profesionaltasunik apenas egotea, besteren artean. Hainbat autorek dioten bezala, “berdintasunaren ameskerian” bizi gara. Maiz horren kontzientziarik ez izan arren, desberdintasunek indarrean jarraitzen dute, emakume kirolariek gainditu beharreko trabak medio. Agian ez dira hain ageriko oztopoak, zeharkakoak baizik, baina neskak kirolera atxikitzeke orduan berebiziko garrantzia dute.

LARRUN honetan ideia bat nabarmendu nahi genuen: jende baten ahaleginari esker berdintasunaren alde pausoak eman dira azken urteotan, baina, tamalez, kirol arloan (ere bai) hutsune asko dago oraindik betetzeke. Ordea, EHuko irakasle Matilde Fontechak *Berdintasuna kirolean: erronka berriak* pasa den hilean Bilbon egindako jardunaldietan zuzendu zizkigun hitzek balazta zapaltzera bultzatu gaitu: “Ohikoa da esatea hoherantz goazela, gero gehitzeko gauza asko dagoela egiteke. Ez dezagun geure burua engai-

natu, hortik jota nekez aldatuko dugu egoera. Hel diezaiozun auziari feminismoaren ikuspuntutik. Kirolak ezinbestekoa du sakoneko eraldaketa, humanizatu eta emakumeen gaitasunei buruzko bere antigoaleko sinesmenak moldatzea. Hausnartu egin behar dugu gizarteko esparru guztietan berdintasunaren arloan gertatzen ari den atzerapausoaz, neosexismoaren azalera-tzeaz, ‘sexu ederraren’ idolatriara itzultzeaz, eta atzeraldi hori kirol jardueran agertzeko moduz. Kirol-erakundeetan emakumeak gutxiengo gisa

■ **Egilea: Jon Torner Zabala**

---

**Azala:** Joseba Larratxe · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

**LARRUN pentsamendu aldizkaria** ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Gorka Bereziartua, Xabier Letona. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.eus **Telefonoa:** (00 34) 943 37 15 45. **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAREN 2.471. zenbakiarekin banatua, 2015eko uztailaren 26an).



**Kirolean aurrera egin duten neska asko sexu bakoitzari lotutako estereotopoei ostikoka aritu dira etengabe. Hope Solo ageri da argazkian, AEBetako selekzioko atezain handia.**

hartzen dira, eta ez gizonen eskubide berberak dituzten herritartzat. Generoa eraikuntza kultural bat dela kontuan hartuta, kirolaren eta genero-rolen arteko erlazioari heldu behar zaio, eta gizarte-harremanen sistemak nola funtzionatzen duen aztertu, sistema horrek emakumeak gizonak baino okerrago kokatu eta femininitasun eta maskulinitasunaren kontzeptuak zehazten dituen heinean”.

Horretan ahalegindu gara, Eusko Jaurlaritzak 2010ean plazaratutako *Goi mailako emaku-*

*mezko kirolarien egoeraren azterketa genero ikuspuntutik* txostena abiapuntutzat hartu eta haurtzaroraino bidaiatuz, gogoan izanik neska eta mutilak jaiotzatik sozializazio modelo desberdinen arabera hezten direla, eta horrek eragina duela gerora bakoitzak ariketa fisikoa eta kirolarekiko izango duen jarreran, zenbait adituk azaldu duenez. Ainhoa Azurmendi izan dugu bidelagun, Avento aholkularitza enpresako kide, kirolari, berdintasun gaietan aditu eta aipatu ikerketa-lanaren egileetako bat. Halaber, elkarrizketa egin diogu Mikel Ibargoien Info7

## **DENBORA, GAKOA: FAMILIA, LANA, IKASKETAK...**

Emakumearen eta kirolaren arteko harremana hainbat faktorek zehazten dute. Gizarteak, komunikabideek, familiak eta abarrek norbere aukerak baldintzatzen dituzte, emakumezko kirolariek egin zen talde elkarrizketa oinarri *duen Kirolak maskulinizatu egiten al du?* (M. Lasarte, 2007) ikerketak jasotzen duen moduan: "Oraindik ere, nesken oso garrantzitsua dira bizitza sentimentala eta familia, zeina gainontzeko guztiarekin uztartu beharra dagoen". Halaber, emakumezko kirolariek eurek eta haien senideek uste dutenez ikasketek kirolaren aurretik egon behar dutela, "ez da harrizkoa ekintza biak uztartzeko denbora falta aipatzea kirola uzteko arrazoi nagusien artean".

Jaurlaritzaren azterketatik hartutako zenbait datu:

- Ikerketan parte hartu duten emakumeen %50ek dituzte goi mailako ikasketak. Gizonetako bakarrak ere ez; hauen artean, %78k erdi-mailako ikasketak eta %22k oinarrizkoak dituzte.
- Emakumeen %77,7k eta gizonen %63,3k uste dute ikasketak eta goi-mailako kirola uztartzea arazo bat dela.
- BAT (Basque Team) fundazioan beka duten gizonen %16,6k eta emakumeen %30,7k lana dute. Lana duten emakumeen %50ek eta gizonen %33,3k denbora partzalean egiten dute.
- Gizonezkoen %46,6k eta emakumeen %100ek uste dute amatasuna arazoa dela goi-mailako kirolarientzat.

irratiko *Kirol leihoa* saioaren gidariari, eta zenbait emakume kirolariren testigantzak ere jaso ditugu, entzundakoak batzuk, han hemen arrantzatutakoak besteak.

## **KIROLERAKO SARBIDEA, HAURTZAROTIK MUGATUA**

"Kirola tradizioz gizonezkoen eremua da", dio txostenak, 2009an BAT (Basque Team) fundazioaren beka lortu zuten 25 emakume eta 28 gizonen bizipenak ardatz dituenak: "Sexu bakoitzari jartzen zaizkion estereotipoak bere egiteaz gain, emakumeek kirolean duten presentzia urria justifikatu eta betikotu egin du, neskek kirola egiteko, lehiatzeko edo esfortzu fisikoa egiteko gai ez diren ustean oinarrituta. Aitzitik, gaitasunari eta trebetasun fisikoei dagokienez, argi geratu da gizonezkoen ustezko nagusitasun horrek, funtsean, arrazoi kulturaletan eta heziketan duela jatorria. Hala ere, emakumeek diskriminaturik jarraitzen dute kiroleko maila guztietan. Izan ere, gaitasun fisikoak garatzeko emakumeek ahalmenik ez dutela dioten mito horrek bultzatuta, gizarteak beste zenbait ideia ere legitimatu ditu: interes falta, arriskua ekiditeko joera edota eraginkortasunik ez izatea kiroleko arlo desberdinetan, izan hura praktikatzean, kudeaketa edota zuzendaritza postuetan, zein epaile-lanak egitean, besteak beste".

Halaber, emakumei kirolerako sarbidea haurtzarotik mugatzen zaiela eta horrek jarduera fisikoaren "efektu onuragarri eta pozgarrietatik kanpo" uzten dituela nabarmendu dute Ainhoa Azurmendi eta Juan Manuel Murua azterketaren egileek: "Sartzea lortzen dutenean ere, haien lorpenak gutxietsiak izaten dira eta ageri-ageriko diskriminazioa jasaten dute; esaterako, kirol erakundeek baliabide gutxiago ematen dizkiete, eta kalitate txarragoak gainera".

Goi-mailako kirolariek izan dituzten oztopo eta zailtasunak ezagutze aldera, derrigorrezkoa da aspektu psikosozial guztiak kontuan hartzea, Jaurlaritzaren azterketak azpimarratu duen bezala:

**Sozializazioa:** Neskato eta mutikoen sozializazioaren bitartez ikasitako jokabideez gain, sexu

**“TURISTA” KLASEAN**

2012ko Joko Olinpikoetara eraman zituen hegaldian, Australiako emakumezko saskibalo jokalariak “turista klasean” bidaiatu zuten; gizonzkoek, aldiz, “lehen klasean”. Eta Japoniako futbol jokalarien kasuan, gauza bera.

**AURREKONTUAREN %1**

Espainiako Futbol Federazioak, 126 milioi euroko aurrekontutik, %1 baino gutxiago zuzentzen du emakumezkoen futbolera. Estatu-tuko lizentzia kopuruari dagokionez, %5 dira emakumezkoak.

bakoitzari lotutako estereotipoek ere eragina dute kirol mota aukeratzean eta aukeratuko duten kirolaren iraupenean. Geroz eta gehiago dira estereotipoak bazter batean utzi eta berez gizonzkoentzat ei ziren kirolak praktikatzan dituzten emakumeak. Dena den, kirol hauetan parte hartzen duten emakumeen aldetik jarrera maskulino bat espero da gaur egun ere.

**Estereotipoak:** Maskulinitatearekin lotutako estereotipoak ez bezala (oldarkortasuna, lidergoa, anbizioa, lehiakortasuna, erresistentzia...), emakumeari atxikitzen zaizkionak (esanekoa izatea, amatasuna, pasibotasuna, menpekotasuna, samurtasuna...) ez dira kirol-errendimendu handiko aktibitatearekin lotzeko moduko ezauzgarriak. Ondorioz, lehiaketazko kirola gizonzkoen ezaugarriekin identifikatu izanak gatazka eragin du errendimendu-kirolean ari diren emakumeengan.

**Maskulinizazioa:** Emakume kirolariak maskulinizazioa betebehartzat dute kirol arloan emaitza onak eskuratu nahi badituzte; emakumezko kirolari batzuek, maskulinizazioa gorputzeko muskulua lantzearekin lotzen dute, feminitatea galduz. Eta haien feminitatea ziurtatzeko, bere burua ‘apaintzen’ dute belarritako, makillaje, takoi eta antzekoen laguntzaz.

**Egiturak eta erakundeak:** Emakumeak egiturazko eta antolaketazko zenbait oztoporri egin behar die aurre kirol ibilbidean, batez ere federazioei eta klubei dagokienez, kirolean parte hartzea zailtzen die-eta: gizonzkoek baino babes

ekonomiko txikiagoa jasotzen dute, ordutegi eta instalazio txarrenak ematen zaizkie, okerren prestatutako entrenatzaileak...

**Babesa:** Goi-mailako kirolari izatera iritsi diren emakumeak, edo kirola izugarri maite duten emakumeak izan dira, desberdintasunez betetako inguru baten, kontziente edo inkontziente izanda, oztopo guztiak gaudituz aurrera egin dutenak, edo kirol arloan dituzten gaitasunekin ohartuta, familiaren eta egituraren laguntza izan dute. Guraso askok, kontuari garrantzi handirik eman gabe, ontzat ematen dute haien alabek kirol-jarduna alde batera uztea. Alabek eurek onartzen dute kirola gaztaroko kontua baino ez dela, ez dutela etorkizunean lanbide izango, eta geroari begira errentagarriagoak izango diren ekintzetan ematen dute denbora.

**Profesionalizazioa:** Eliteko kirolaren eredu hegemonikoak irentsi egin ditu goi-mailako emakumezko kirolari asko; nahiz eta ez diren jandako desberdintasunez jabetzen –dauden lekura heltzeko jaso dituzten laguntzak medio–, badira kontraesanak haien adierazpenetan. Profesionalizazioari buruz hitz egitean, adibidez, “utopia” bat dela onartzen dute.

**Ereduak eta komunikabideak:** Emakumeentzako eredu eta erreferente faltak ere badu eragina neskatoengan geroari begira. Hedabideek nesken lehiaketen berri ematea ezinbestekoa da haien lorpenak ikusarazi eta emakumeak kirola egitera bultzatzeko, sarri ez baitaude nori begiratu.

DANI BLANCO



## “Federazio eta klubek ez gaituzte mehatxu bezala ikusi behar, aukera moduan baizik”

### Ainhoa Azurmendi

Avento aholkularitza

Berdintasun gaietan aditua da Ainhoa Azurmendi. Avento aholkularitza-entresako kide, kirolean genero ikuspegia lantzeko hainbat gidaliburu en egile eta eskubaloj jokalaririk federatua 2012ra arte. Hernani, Fortuna, Pulpo eta Ereintza taldeetan jokatu zuen. Gaur egun korrika aritzen da, mendian, piraguan, palan... Emakume kirolariek gaintu beharreko oztopoez mintzo, egiturazko arazoak nabarmentzen ditu.

**Eztabaidaren abiapuntua jaiotzen garen unean bertan kokatu beharko genukeela diozu.**

Adibide gisa guraso batek esan zidana jarriko dizut. Euria egitean alabak ezin zuela eskubaloian jokatu zioen, busti eta katarroa harrapatuko zuelako. Eguraldi berarekin semeak futbolean egiten zuela erantzun nion, eta berak: “Bai, baina ez da berdina”.

Bestetik, adiskideek esaten didate arraroa dela mendian emakumezko bat bakarrik, lagunik gabe, ibiltzea. Arrazoiak ez da mendia gogoko ez izatea. Nork ez du gustuko askatasun sentipen hori, itsasoan igeri egitea, piraguan aritzea, kalean korrika egitea, espazioaz gozatzea? Auzi honek guztiak sozializazio prozesuarekin du lotura. Tradiziozko espazio itxietan hezi gaituzte, eta kontrolatuago

izan. Halaber, nesken gorputz mugimenduari mugak jarri zaizkio. Garrantzitsua da txiki txikitatik koordinazioa bezalako abileziak garatzea, lasterka egitea, harkaitz artean ibiltzea, arraunean aritzea, baloiarekin jolastea... Sarri esan ohi da: “Mutilak hauxe behar du, mugitua baita oso!”. Bada, neskek ere bai! Gertatzen dena da jostailuen bidez-eta mugak jartzen zaizkigula. Baloiarekin psikomotrizitate gaitasunak gara daitezke, panpinarekin ordea... Berdin arroparekin; gonatxoek esaterako mugimendu askea oztopatzen dute.

**Txiki txikitatik jasotakoak, beraz, garrantzia du neskek kirolari atxikitzeko orduan.**

Hala da, kirola satisfazio iturri bilakatzea inportantea da. Lan mordoa dago egiteke; guraso, irakasle eta gainerako eragileei baliabideak eskaini behar zaizkie nesken artean kirolaren gaineko motibazioa suspertzeko. Hainbat jende oso kontziente da eta nor bere esparruan ahalegin handia egiten ari da, baina ezinbestekoa da ditugun tresnak are gehiago gizarteratzea.

Maiz, normaltzat hartzen da adin batera helitzean neskek kirola uztea, zerbait subjektiboa balitz bezala. Eta ez da subjektiboa. Emakume batek kirola eginez plazera sentitzen badu, eta



ARASKI.COM

**Emakumezkoen kirola bistaratzea helburu, hainbat ekitaldi egin da uztailean Gasteizen, Zerbait aldatzen ari da. Gehiago nahi dugu! lotopean. Berdintasunaren aldeko lanak fruituak eman dituela nabarmendu dute kirolariek, diziplina batzuetan lortutako emaitzek erakusten dutenez. Hala ere, gisa honetako ekimenak oraindik ere beharrezkoak direla diote: "Agian, egunen batean, eskatu gabe helduko zaigu lortutakoaren aitortza. Gaur gaurkoz, baina, instituzioei eta orohar gizarteari ematen diegu testigua, euren babesik gabe oso zaila dugulako aurrera egitea. Pausoak pauso, ez gara konforme. Hedabideetan presentzia eta aitortza izatea garrantzitsua da, baina oinarritzko kirolean hasten den lan horrek patroli bat izan behar du, kirolarien baldintzak hobetuko dituen planifikazio zehatza".**

gorputzaren bidez satisfazioa hartu, bizitza osoan bilatuko ditu sentipen horiek.

### Gorputzarekin dugun harremana aipatu duzu...

Lotsa, estetika, konplexuak... osagai ugari nahasten da. Hedabideek, esaterako, edertasun kanon batzuk errepikatzen dituzte etengabe, eta horrek eragin handia du geure gorputza baloratzeke orduan. Kirola txikitatik egin badut, aldagetan beste neska batzuekin egon, gorputz ezberdinak ezagutu eta lehiak dakarren kontakua naturaltasunez bizi, eragina izango du aurrerago ere kirola praktikatzeko orduan.

Emakume askok aipatu izan didate lotsarena. Aditzera ematen dute ez direla aske desio duten hori egiteko. Batzuek esango didate kiroldegietan neska piloak ikusten dela. Arrazoi dute, eta positiboa da, baina lehengora goaz: leku itxi eta kontrolatuak dira. Egoerarik idealena litzateke neska horiek kiroldegitik kanpo ere beste gauza batzuk egiteko aukera izatea.

### Eta ez dute? Zerk oztopatzen die?

Neskek kirola egiteko hainbat oztopo dituztela aipatzeak ez du zertan esan nahi noibait gu izorratzeko asmoz dabilenik. Gehiago ari gara biz-

### **EMAKUMEZKO PRESIDENTE BAKARRA**

EAEko 47 kirol federazioen artean, bakarrak du emakumezko presidentea, golfekoak. Federazio-lizentzietatik %22 inguru dira emakumeenak.

karrean dakarten zamaz, sozializazio prozesuaz eta rol estereotipoez: jostailuak, jantziak, sexu batekiko eta bestearekiko exijentzia eta espektatibak, iragarki eta komunikabideetan emakumezkoek duten tratamendua... Egia da pausoak eman direla, erakundeek parekidetasunaren aldeko politikak garatu dituztela, errugbian edota arraunean esaterako gauza politak ikusi direla, gure aldarrikapenak gizartean onartuago daudela eta neska gehiagok egiten duela kirola. Dena den, oinarriaz eztabaidatuko bagenu, praktikan berdintasuna ematen ote den ala ez... Aurrerapauso ez mintzatzean ez ginateke gehiegi animatu behar. Sentsibilizazio eta formazio lan handia dago egiteke; legedia betearazi eta gaiari merezi duen garrantzia eman behar zaio. Eta aldaketak emateko, ezinbestekoa da horretarako borondatea izatea.

Legedia aipatuta, Eusko Jaurlaritzaren 4/2005 Berdintasunerako Legeak kirolaren inguruko atal bat jasotzen du, hainbat mailatan (federazioetako egitura eta hauteskunde prozesuetan edota eskola-adinean dauden gazteen kirol jardunean) eragiten duten neurriak zehazten dituena.

Berdintasun Legearen artikulua batek dio erakunde publikoek ezin dezaketela diruz lagundu emakumeak diskriminatzen dituen kirol jarduerarik. Oso tresna ona da, marko bat ematen du, baina kontua da, oro har, hori kontrolatzeko nahikoa ahalegin ez dela egiten; gainera, trafiko legea ez bezala, Berdintasun Legeak izaera punitiboa ez duenez... Administrazioek zorroztzago kontrolatu beharko lukete federazioek-eta

### **KLUBEZ ALDATZEKO ARRAZOIAK**

Gizonen %45,5ek eta emakumeen %16,6k beste talde baten aldetik kirolariaren berarenganako interesa (fitxaketa) aipatzen dute. Neskek eman duten arrazoietakoa bat da –gizonek aipatu ere egiten ez dutena– entrenatzailearekin edo giroarekin gustura ez egotea. *(EAEko Goi mailako emakumezko kirolarien egoeraren azterketa)*

haien aurrekontuen aplikazioan edota komunikazioan genero inpaktua aintzat hartzen ote duten, hizkera sexista baztertzeko neurriak aplikatu eta parte-hartze programak garatzen ote dituzten... Hori guztia aztertzeko bitartekoak behar dira, ordea. Federazio eta klub batzuek eman dituzte pausoak, baina koordinatu gabeko urratsak dira; ez dago apustu bateraturik. Oinarriko formazioa falta da, plangintza orokorra egitea, zer eta nola aplikatu jakitea. Ezinbestekoak dira aldaketa estrukturalak. Federazio eta elkarteek ez lukete mehatxu bezala hartu behar, aukera moduan baizik.

Federazioez mintzo zarela, Dorleta Ugaldek, Eusko Jaurlaritzako Kirol zuzendaritzako berdintasunerako programen arduradunak, ARGIAN egin genioen elkarrizketa batean zioen azken hamar urteetan kirol federazioetako lizentziak ez direla gehitu emakumeen artean, kopuru osoaren %20 izaten jarraitzen dutela, baina neskek bai gehitu direla kirolera, beste modu batzuetan: gimnasioetan, kiroldegian, bere kabuz, taldeka... Ugalderen hitzetan, federazioaren eredia ez zaie ongi egokitzen eta partaidetza zabalagoa bermatzen duen kirolaren ildotik egin dute bidea emakumeek.

Gaztetan, askotan entzuten dugu neskek ez dutela gogoko kirola egitea. Gertatzen dena da, agian, gustuko ez dutena egitura konkretu batzuetan dagoen estiloa dela, edota jasotzen



**JANZKERAZ KEXU**

Emakumezko kirolariei inposatu nahi izan zaien janzkera polemika iturri bihurtu da zenbaitetan, hondartzako eskubaloi jokalarien bikini eta boxeolarien gonatxoak kasu. 2012ko Olinpiar Jokoetan aurrenekoz aritu ziren emakumeak boxeoa. Saiakerak izan ziren gonak erabili zitzaizten, baina kexak medio, Nazioarteko Boxeo Federazioak erabaki zuen neskei aukera ematea norberak nahi zuen arropa janzteko.

duten tratua. Zenbatetan entzun ote dugu ez garela lehiakorrak? Ez da hori kontua. Neska batzuk lehiakorrangoak dira besteak baino; mutiak bezalatsu. Estereotipoak behin eta berriz errepikatze hori...

Planteamendu orokorra izatea garrantzitsua da, ez soilik federazio edota klubek; oro har, kirol politika egiten denean genero ikuspegia aintzat hartzea funtsezkoa da. Beharrezkoa da plangintza eta programaketa generoaren ikuspuntutik egitea –lehiaketetarako datak gizon eta emakumeen beharrak kontuan hartuta zehaztea edota instalazioetan emakumeentzat aldagelak eta komunak egotea, adibidez–, aurrekontuek emakume eta gizonengan duten eragina kontuan hartzea desberdintasunak ekiditeko, erabakitze organoetan parekotasuna sustatzeko mekanismoak ezartzea eta bileren ordutegiak kide guztien beharretara egokitzea, emakumeen eta gizonen lehiaketetarako epaile kopuru bera izendatzea eta guztiek ordainsari bera izatea, emakumei ez asignatzea sistematikoki ordutegi edo instalazio txarrenak, kirol-arropa erosterakoan emakumeen morfologia kontuan hartzea, hizkuntza eta irudien erabilpen ez sexista egitea, jasotako diru-laguntzak justifikatzea, neskek kirola uzteko dituzten arrazoiei arreta berezia jartzea, hezkidetzaren curriculumetan sartzea eta abar.

DANI BLANCO



**“Neskek kirola egiteko hainbat oztopo dituztela aipatzeak ez du zertan esan nahi norbait gu izorratzeko asmoz dabilenik. Gehiago ari gara bizkarrean dakarten zamaz, sozializazio prozesuaz eta rol estereotipoaz”.**

Curriculumean ez egoteak ez du esan nahi lantzen ez denik...

Egia da jende bat lan eskerga egiten ari dela esparru horretan, Jaurlaritzak hainbat plan jarri dituela abian... baina funtsezkoa da curriculumetan sartzea, baliabideak –ezagutza– falta direlako, baita Gorputz Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ere.

# Komunikabideak, diskriminazioaren konplize?

“Kirolaren mundua, izan erabaki postuetan emakumerik onartzen ez duelako edota haien profesionalizazioa eragozten duelako, izugarri androzentrikoa da, eta hedabideen kolaborazioari esker, neskato eta emakumeak diskriminatzeko tresna eraginkorra”. Matilde Fontecha EHUKo irakaslearen iritzi zorrotza berresten du, hein handi batean, Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol zuzendaritzak aurkeztutako *Emakumezkoen kirolaren presentzia eta tratamendua Euskal Herriko prentsa orokorrean eta kirol arloko egunkarietan. 2013-2014 denboraldia* txosten mardulak.

*Beria, Deia, Diario de Noticias de Alava, Noticias de Gipuzkoa, Gara, El Diario Vasco, Arabako eta Bizkaiko El Correo, Mundo Deportivo eta Marca* egunkarietan plazaratutako 15.316 kirol albisterei azterketan oinarrituta, emakumeen kirolak prentsan “presentzia kuantitatibo eta kualitatibo eskasa” duela ondorioztatu du ikerketa burutu duen ASPIC komunikazio agentziak.

“Hedabideek emakumeen kirolari ematen dioten arreta desegokia eta selektiboa da eta, askotan, genero-mailako estereotipoak indartuz edo beraien emaitzak gutxietsiz agertzen dira”, dio txostenak. “Kezkagarria da ere, hedabideetan gehiago agertzeko helburuz, geroz eta nabaria goa den emakumeen gorputzaren merkantilizazioa, konnotazio sexualak medio, errendimendu eta kirol emaitzei zor zaien arreta aldentuz”.

Nesken kirola hedabideetan kalitatez agertzea ezinbestekoa da babesak, ikusleak eta beste diru-sarrera batzuk erakartzeko, eta hala ez egiteak erroto baldintzatzen du emakume kirolarien profesionalizazioa. “Bitxia bada ere, hedabideek arrazoi berberak argudiatzen dituzte emakumeen kirolari

lari berri ez emateko. Euren burua babesteko, jendeari interesatzen zaion informazioa ematen dutela diote hedabideek, eta hala izango da sarri, seguru; baina jakin nahiko genuke askotan ez ote diren hedabideak beraiek interesa eta beharra sortzen dutenak, halakorik egon baino lehen”.

Ikerketak hamaika datu eta ondorio bildu du. Hona horietako batzuk:

## ONDORIO Kuantitatiboak

- 15.316 kirol albisteen %4,96 soilik dira emakumei buruzkoak.
- Azaletan agertutako 632 albisteen %4,11 dira emakumei buruzkoak.
- Emakumez mintzo diren berrien %40 laburrak dira.

## Kualitatiboak

- Klasiko bat da emakumezko kirolarietara abizenak kendu eta izena bakarrik uztea. Honek ez dio kirol arloari soilik eragiten.
- Familia behin eta berriz aipatzen da emakumezko kirolarien inguruko berrietan. Gizonek, bizitza profesionala; emakumeek, familia artekoa.
- Estereotipoak: apaintasuna, feminitatea, fisikoaren inguruko aipamenak, paternalismoa.
- Emakumezkoen garaipenak gutxiago balortzen dira.
- Ez dio inporta kirolariak diren ala ez diren. Hedabide batzuetan, ohikoa da kirol informazioarekin batera biluzik edo oso arropa gutxiarekin dauden emakumeen argazkiak aurkitzea.



**Mikel Ibargoien**

Info7 irratiko *Kirol Leiboa* saioaren gidaria

## “Nesken presentziaz kexu direnek informazio hori kontsumitzea ezinbestekoa da”

Mikel Ibargoien Info7 irratiko eta *Gaur8* kazetako kolaboratzaileak Rikardo Arregi Sarietan aipamen berezia jaso du, emakumeen kirolari eskainitako *Kirol Leiboa* elkarrizketa tarteagatik. Saioaren zioez eta ofizioaren ajeez galdetu diogu.

### Nola mamitu da Info7ko irratsaioa?

2011n, ETBn lanean ari nintzela, nesken belar hockey partida batzuk zuzenean jarraitzea egokitu zitzaidan eta konturatu nintzen, jende askok pentsatzen duenaren kontra, maila oso altua daukate. Orduan hasi nintzen gaiari buruz hausnartzen, eta pasa den urtean Info7 irratikoei *Kirol Leiboa* egitea proposatu nienean baiezkoa eman zidaten. Egoerarik onena horrelako saiorik egin behar ez izatea litzateke, baina gaur gaurkoz ezinbestekoa da. Emakumezkoak, sarri, ez ditugu haien lorpenengatik baloratzen; aitzitik, sexua da neurgailua.

Emakumeek kirol maila altua izan arren, ez duela nahikoa interesik pizten dio kazetari askok.

Zenbait kirol kazetarirekin hitz egiteko parada izan dut eta gehientsuenek esan didate emakumeek maila ona dutela. Halere, nesken kirolak ez duela saltzen diote, eta hedabideentzat arriskutsua dela tarte handia eskaintzea, kontsumitzaile

eta babesleek atzera egin dezaketelako. Ulertzekoa da haien jarrera. Zentzu horretan, beharrezkoa da emakumeek hedabideetan duten presentziaz kexu diren herritarrek nesken partidak-eta zuzenean ikustea eta haiei buruzko informazioa kontsumitu eta zabaltzea. Telebistak partida bat eman eta harmailak hutsik ikusten badira...

Ohitura dago neskak eta mutilak alderatzeakoa. Akats bat da, bakoitzak ezaugarri propioak baititu. Gezurrik ez dugu esango: gizonezkoak azkarragoak dira, indartsuagoak. Desberdinak garelako ulertu behar da. Baina desberdintasun horretatik abiatuta ere, neskek teknikoki maila ona dute, emaitzek erakusten duten moduan. Badute jendea erakartzeko gaitasuna. Haien alde apustu egin behar dute, gizarte osoak oro har, eta komunikabideek zehazki.

### Hedabide batzuetan aldaketatxoak sumatzen dira...

Bai, batzuk ari dira pausoak ematen: Euskadi Irratia, *Gara*... *Marca* egunkariko Oscar Badallo ere kazetari interesgarria da. Nesken kirola baloratzen du, partidak zuzenean ikustera joaten da... Beste kontu bat da zuzendariak lekurik ematen ote dion emakumezkoen kirolaz idazteko.



MANU DE ALBA

**Eli Pinedo, Mainer Unda eta Patricia Elorza, 2012ko Joko Olinpikoetan irabazitako brontzezko dominekin.**

Garrantzitsua da hedabide handiek urratsa ematea, gainerakoek haiei jarraituko dietelako. Denek dute erantzukizuna, baina EITBk, heda-

bide publikoa den heinean, ikusle kopurutik harago begiratu behar du, eta berdintasuna bezalako baloreei leku egin. Telebistak –irudiak– bereziki indar handia du.

### **DOMINA OLINPIKO GUZTIAK, NESKENAK**

2012ko Olinpiar Jokoetan euskal kirolariek irabazi zituzten hiru dominak –guztiak brontzezkoak– emakumezkoek lortu zituzten: Maialen Chorrautek (piraguismoa), Mainer Undak (borroka librea) eta Nely Carla Albarto, Eli Pinedo, Andrea Barno eta Patricia Elorza jokalariek (eskubaloia). Azken horien entrenatzailea Jorge Dueñas bilbotarra da.

Onda Vasca irratiko kirol zuzendari Iñaki de Mujikak kontatu zidan Bizkaiko egunkari batek, Athletic futbol taldeari egunean sei orri eskaintzen zizkionak, hilabetez bost orrira pasa zuela dosia, beste kirol batzuei tartea egiteko. Bada, denbora horretan egunkariaren salmentak jaitsi egin ziren eta lehengora itzultzea erabaki zuten. Luzera begira egin behar da apustu, jendeari denbora emateko aldaketara ohitu dadin. Interesa areagotuko luke horrek, ispilu izango diren erreferente gehiago sortu, babesleak erakarri eta emakumezko kirolarien profesionalizaziorantz urratsak ematen lagundu.

# Protagonisten bizipenak

## Iratxe Aranburu, korrikalaria eta kirol teknikaria

“Nik diodana da eskola kirola mutilentzako pentsatua dagoela, neskatilek eskaintza hori nahi al dute? Txikiekin ez gara asmatzen ari. Txikitako garaiak gogoan, kirola ez zen gurera egokitu, gu egokitu ginen kirolera, gizona zkoen eremura, alegia. Beti esan da neskek ez dutela kirolik egin nahi, mutilak kirolean astakirtenak direla eta neskek baldarrak. Agian, kirol eskaintza eta exijentziak (mutilen trebezietan oinarrituak) dira nesken partaidetza murriztaren arrazoï nagusiak”. (ARGIA, 2007-05-27)

## Dorleta Ugalde, Eusko Jaurlaritzako Kirol zuzendaritzan, berdintasunerako programen arduradun

“Azpimarratuko nukeena da inertiaren esku utziz gero, ez dela handitzen emakumeen partaidetza kirolean, ez federazioetan eta ez proba herrikoietan. Behobia-Donostiari Emakundetik diru-laguntzak ematen hasi ziren duela bost urte inguru. Diru-laguntza horiekin, Gipuzkoan, inoiz korritu ez zuten emakume taldeak sortu zituzten eskualdeka, epe luzera Behobia korritzeko, entrenatzaile batekin. Zarauzkoa da arrakastatsuen (...). Zarauzko kros mistoan distantzia jaitsi eta aldapak kendu ziren, neskentzako kamisetak ere atera zituzten... Onartuak direla eta kontuan hartzen dituztela sentitu behar dute emakumeek, bestela lekuz kanpo ikusten dutelako beren burua, giro arrotzean”. (LARRUN, 2014-01-26)

## Miren A., errugbi jokalaria ohia

“Partida hartan ni nintzen taldeko kapitaina. Aurkariak guri mehatxu egiten hasi ziren modu itsusian. Epailearengana joan eta gertatzen ari

zena kontatu nion. Eta hark erantzun: ‘Errugbia da hau. Jokatu nahi ez baduzue, zoazte etxera platerak garbitzera’. Beste batean, partida amaitu eta dutxatu ostean, epaileetako batek: ‘Lehen zeneukaten piurarekin... polit asko zaudete orain!’. Horrelakoak, mila. Arbitroak, autoritateak, babesten ez bagaitu, nor egingo du?’”.

## Iguntze Aseginolaza, areto futboleko jokalaria ohia

“Sekula ez dut arazorik izan. Gustuko nuena egin nuen, futboleko jokatu, bidaiatu... giro ona genuen gainera, eta hori funtsezkoa da. Entrenatzeko orduan-eta lehenetsua mutilek ote zuten? Egia esan, ez dakit. Guri ordua jarri eta hantxe joaten ginen... Maila pertsonalean baino, desberdintasunak agian handiagoak ziren aitortza edo oihartzun aldetik. Espainiako txapelketa jokatu nuenean, mutilen hotelean hartu genuen ostatu, sari bera geneukan (domina kasikar bat eta listo)... Baina haien partidek oihartzun handiagoa zuten. Eta herrian bertan ere, jendeak bazekien areto futboleko ari nintzela, baina hortik aurrera... Sei urte dira utzi nuela, eta jarraitzen ote dudak galdetzen didate oraindik batzuek. Kontziente naiz ordea areto futbolaz ari garela, eta emakumez gainera. Zentzu horretan, bere txikitasunean, ilusioa egin zidan *Garan* nesken emaitzak ere jartzen zituztela ikusteak. Egia da, bestalde, mutilak kirolari gisa ikusten dituela zenbait jendek, eta gurea hobby bezala hartzen dela. Ez dit batera axola, desio nuena egiten bainuen. Guztia eman nuen futboleko aritzeko. Oraindik ere talde batzuek eskaintzen didate aukera haiekin jokatu edo gutxienez entrenatzeko. Baina lanagatik –hiru errelebotara ari naiz– ezingo nuke behar bezala entrenatu, eta nik ez dut entrenatzeagatik entrenatu nahi. Lehiakor samarra naiz”.



**Garazi Lizarragak (ezkerrean, Alba Sistiagarekin batera) uste du ghettoak ez sortzeko txapelketa herrikoiak mistoak eta irekiak izan behar direla, denak denekin aritzeko, "guk ere nahi dugulako bikote onen aurka jokatu".**

**Garazi Lizarraga, Irungo Mosku auzoko pala txapelketan hartzen du parte**

"Ez gaude kirol mistoetara ohituta. Adin batetik aurrera mutilak mutilekin eta neskek neskekin banantzen gaituzte, eta hortik aurrera ez duzu aukerarik kirol mistoan jokatzeko, ez bada horrelako txapelketa herrikoietan, baina nola aurretik ez duzun landu mutilekin batera jolastea, kirol mistorako aukera agertzen denean ez duzu pauso hori ematen. Txapelketa hauetan neskek normaltasunez eman dezaten izena, kirol mistoa haurtzaroan jorratzen hasi eta adinean aurrera egin ahala lantzen jarraitu beharko litzateke". (ARGIA, 2015-07-12)

**Nieves Alza, Hondarribia-Irun taldeko entrenatzaile eta presidente ohia**

"Etsigarria zen ikustea nola guk baino emaitza kaskarragoak zituzten gizonezko talde batzuek

guk baino babes eta laguntza gehiago jasotzen zuten. Larriena da politikariek jakintzat ematen dutela gizonezko talde bati gehiago ordaindu behar diotela. Oso larria da hori. Diru publikoarekin ezin da diskriminatu, baina kirolean diskriminatzen da. Egoera bidegabea da, are gehiago kontuan hartuta azken urteetan emaitza onenak emakumeek lortu dituztela". (Berria, 2015-02-08)

**Naiara Gomez, erretiroa hartu berri duen piraguiста**

"Emakume bakoitza desberdina da. Baina bada izendatzaile komun bat: ama izan ondoren lehian aritu nahi badut, oso argi izan behar dut hala nahi dudala, zeren eta antolatze modua arras desberdina da. Kirolariak argi izan behar du: une horretan eten egin behar du bere kirol-karrera eta, ondoren, itzuliko da, denborarekin entrenamendu espezifikoko berrira egokituz".

### Iñaki de Mujika, Onda Vascako kirol zuzendaria

“Kontuan hartu behar den lehen gauza da kirolaren eragina gizartean, eta haren eraginkortasuna publizitatean. Gipuzkoako jendeak futbola eta Reala eskatzen du, eta, hori ematen ez badiot, entzuleak galtzen ditut. Nik errespetu handia diet emakumeei, baina beraien eragina oso txikia da”. (*Gaur8*, 2015-05-02)

### Ana Rosa Gómez, kazetaria

“Biraoen, ezikusien eta umiliazioen garaiak ahaztuta dauden arren, emakume futbolariak ez dute dirua, ospea eta botere sinbolikoa lortu. Pribilejio horiek defendatu aldera, gizonezkoek merkatuaren legeak aipatuko dituzte. Esango dute ez dela haien errua euren partidu kaskarrenak ere emakumezkoek joka dezaketen norgehiagoka onenak baino interes handiagoa piztea, eta jendea gehiago ordaintzeko prest izatea. Dena den ez dugu ahaztu behar merkatuak kalte egiten duela; ezaugarri ustez maskulinoei eta gizonezkoen ekintza guztiei garrantzia handiagoa ematen dieten baloreetan oinarriturik funtzionatzen du”. (*Futbola, gizonezkoen kontua?* Emakunde, 2003)

### Iraia Iturregi, Athletic-eko kapitaina

“Ez dut uste gizonezkoen kontratuak inoiz izango ditugunik, baina bai hobera egingo dugula. Hamalau urte nituela hasi nintzenean ez ziguten futbol zelaian entrenatzen uzten, jubenilak zeudelako. (...) Gain-sariak ordaintzen hasi ziren, ondoren dieta-kontzeptuengatik soldata, eta iaz kontratu profesionala egitea lortu genuen, horrek esan nahi duenarekin. Lesioa izanez gero, adibidez, baja kobratuko duzu. Emakumezko talde asko ari dira urrats hori ematen. Bigarren B edo Hirugarren mailan ari diren mutilek zenbat kobratzen duten entzuten dudan bakoitzean haluzinatu egiten dut. Alde horretatik izugarri urrun gaude”. (*Dxtfem*, 2015-05-05)

### Mertxe Aizpurua, Getaria-Zarautz traineruko entrenatzailea

“Urte asko eman dut Getarian arraunean. Esango nuke, maila altua lortu genuen urteetan, material onena neskei ematera heldu zirela. Badakit beste leku batzuetan hondarrak iristen zaizkiela, egun batetik bestera txalupa kendu dietela mutilei interesatzen zitzaielako... Gauzak hoberantz doaz, baina... Garai batean gerta zitekeen gure estropada jokatzeko ordua azken unean aldatzea, mareengatik-eta gizonezkoei gehiago komeni zitzaielako ordu horretan aritzea”. (Hamaika Telebistako *Idemtitateak* saioa, 2014ko abendua)

### Patri Espinar, pilotari ohia

“Eskuz hasi nintzenean neska oso gutxi geunden, txapelketak mutilen aurka jokatu behar genituen...Frontoietan emakume gehiago dago orain, lehiaketak... Federazioan lan handia egin dute emakumearen integrazioa bultzatzeko. Futboletik nator ni: arbitro eta ordutegi txarrenak genituen, gauzez entrenatu behar genuen, gizonezkoen arropa ematen ziguten... Geroz eta gehiago gara kexatu garenak, eta egoerak hobera egin du”. (Hamaika Telebistako *Idemtitateak* saioa, 2014ko abendua)

### Eli Pinedo, Bera-Bera eskubaloi taldeko jokalaria

“Londresko Joko Olinpikoetan parte hartu nuenetik partida askotan geratu behar izaten dut jendearekin argazkiak ateratzera, eta gutxika emakume erreferenteak sortzen ari dira eskubaloi behintzat. Beraz, aurrerantz goazela esango nuke eta hori oso garrantzitsua da. Nik gartzaroan ez nuen emakumezko erreferenterik”. (*Gaur8*, 2015-05-02)

---

ARGIA.eus/argia-astekaria/larrun/2471 helbidean informazio gehigarria topatuko duzue: ikerketa-lan, txosten eta gidaliburueta loturak, gaiari buruzko bideoak eta kirolari gehiagoren testigantzak, besteren artean.

2. argitaraldia  
eskuetan

# BIZI BARATZEA

'garaian' 'garaikoa' 'garaiz'

Jakoba Errekondo

Zure baratzea sortzeko, moldatzeko eta eusteko behar duzun liburua  
**ARGIAren eskutik**

Liburuaren aurrerapena ikusgai  
[www.argia.eus/baratzea-lagina](http://www.argia.eus/baratzea-lagina)  
helbidean



184 orrialde (21,5x25 cm)

23 €

19,50 €  
harpideentzat

**Eskaerak:**

☎ 943 371 545

[www.argia.eus/denda](http://www.argia.eus/denda)

[denda@argia.eus](mailto:denda@argia.eus)

Informazio gehiago:  
[www.argia.eus/bizi-baratzea](http://www.argia.eus/bizi-baratzea)

📱 @bizibaratzea

**AURKEZPEN-HITZALDIAK HERRIZ HERRI**

*Antolatu zure herrian*

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratuko duzu:

[sustapena@argia.eus](mailto:sustapena@argia.eus) · ☎ 943 371 545

**argia**

**antza**  
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA